# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

## 3377

*EBAZPENA, 2013ko uztailaren 8koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena. Ebazpen horren bidez xedatzen da Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 108/2013-R prozedura laburtuko administrazioarekiko auzi errekurtsoari dagokion PCA-146-2013-VI administrazio-espedientea, baita balizko interesdunak epatzea ere epaitegi horretan ager daitezen.*

Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 6 zenbakiko Epaitegiak 108/2013-R prozedura laburtuan izapidetutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion PCA-146-2013-VI espedientea bidal dakiola eskatu du. Errekurtso hori xedapen honen aurka jarri da: Ebazpena, Giza Baliabideetako zuzendariak 2013ko otsailaren 4an emandako ebazpenaren aurka jarritako gorabidezko errekurtsoa gaitzesten duena. Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen haren bidez, hutsik utzi zen 20703 kodeko lanpostua zerbitzu-eginkizunean betetzeko eginiko deialdia, hain zuzen ere 2012ko abenduaren 13ko ebazpenaren bidez eginikoa.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Eskatutako administrazio-espedientea Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegira bidaltzea.

2.– Prozedura honetan interesa dutenak epatzea, egoki baderitzote, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6. Epaitegian ager daitezen –108/2013-R prozedura laburtuan– eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 8a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.